

HEZKUNTZA PUBLIKOAREN ALDE. PRIBATIZAZIOARI EZ! UDAZKENEAN, DENOK KALERA!

Pasa den abenduaren 14an, Hezkuntza sistema publikoaren alde egitea helburu duen Euskal Eskola Publikoaren Aldeko Topagunea aurkeztu genuen. Orduko hartan, gure hezkuntza-sistemaren diagnostikoa azaldu eta hainbat datu jarri genituen mahai gainean, bi sareetako datuak, publikokoak eta pribatu-itundutakoak, gaur egun errealitate gordina den eskola-segregazio jasanezina islatzen dutenak. Ez dugu Eusko Jaurlaritzatik inolako erantzunik jaso.

Orain ikasturte gogor honen balantzea egitean, Jokin Bildarratz Hezkuntza Sailburuaren lehen ikasturte honetan, zoritxarrez, lanak izan ditugu:

- Topagunea osatzen dugun plataformen arteko harremanak finkatu eta indartu egin ditugu.
- Otsailean, matrikulazio garaian, “Euskal Eskola Publikoaz Harro” kanpaina babestu nahi izan zuten pertsona ezagun askok eskola publikoarekiko harrotasuna azaldu zuten.
- Martxoan, Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean parte hartu genuen alderdi politikoak zuzenean interpelatuz.

Bildarratzek kargua hartu zuenetik ez da ezer mugitu eta Jaurlaritzaren hezkuntza politikak merkatuaren interesen menpe jarraitzen du. Diru publikoa banatzeko irizpide bakarra oraindik orain kontzertazio unibertsala da. Madrilek markoa jarri eta EAeko Hezkuntza Sailak areagotu baino ez du egin sufritzen dugun sistema duala. Honen ondorioz, gaur egungo datuek lotsagarri izaten jarraitzen dute:

Adibide bat ematearren, pasa den apirilaren 21eko “*Diversidad y Libertad*” izeneko txostenaren arabera (*Esade-Save the Children*), EAE laugarren postuan kokatzen du, ELGAko herrialdeen artean (Turkia, Lituania eta Madrilen ondoren) lehen hezkuntzako eskola-segregazioa neurtzen duen zerrendan. **Estatu espainolean bere jatorriagatik ikasleak gehien segregatzen dituen erkidegoa da EAE, eta bigarren tokian dago egoera sozioekonomikoagatik egiten duen ikasleen bazterketan.**

Bi hezkuntza-sareak ez dira berdinak eta ezin dira parekatu bere tratamendu politikoan eta administrazioak emandako babes mailan. Publikoa denona eta denontzat den bitartean, sare pribatua kuota ordaintzen dituztenentzat edota erlijio bati atxikitzen direnentzat da, eta klasismo arrazistari jarraiki egoera zaurgarrian dauden familiei sarbidea ukatzen die, familien aukeratzeko delako eskubidea aitzakia hartuta. Aukeraketa honek ondorio zuzena du hezkuntza-sisteman eta gizarte osoan: eskola-segregazioa. **Edozein kuota ekonomikok, sareen dualizazioak, segregazioa sortzen du.**

Topagunearen iritziz, ikasle guztiek elkarbizitzarako gaitasuna lantzeko aukera izango dutela bermatu behar da, aniztasun kulturean eta sozioekonomikoan murgilduta, pertsonalki eta sozialki aberastu ahal izateko, aniztasunera irekitako gizarte inklusiboaren oinarriak ezartzeko. Hori ez da gertatzen ez familia pobreen indize handia duten eskoletan, ezta, diru publikoarekin finantzatuta, estratu sozioekonomiko ertain-altua duten haurrentzako soilik irekita dauden eskoletan ere. **Guztiak galtzen ari dira, guztiok galtzen ari gara eta etorkizuneko gizartearen ongizatea kolokan jartzen ari da.** Eta ez dezagun ahaztu, euskalduntze prozesuan, segregazioa oztopoa dela, euskararen normalizazioaren aurka jokatzeko duena.

EAEko hezkuntza-sistema inflexio puntu batean dago. Agerikoa da Jaurlaritzan dauden alderdiei hezkuntzan gertatzen den giza eskubideen urraketak ez diela gehiegi axola eta Bildarratzen hitz eta irribarreez harago, ez dagoela ezer ez: eskola segregazioa eragiten duten pribatizazioari eta ikasleen baztertze dinamikei aurre egingo dien neurri eraginkorrik ez dago. **Gizarte kohesioa ardatz dituen neurri errealak urgenteak dira.**

Baina datozen urteetako jaiotze kopuruaren jaitsierak ezinbestean eramango ditu EAJ eta PSE erabakiak hartzera. Nahi edo nahi ez, Jaurlaritzak hartu beharreko sakoneko erabaki politikoek EAEko hezkuntza-sistemaren eta gizartearen etorkizuna baldintzatuko dute. Tamalgarriak dira zentzu honetan Sailburuak LOMLOEren onarpenaren ostean eginiko adierazpenak: *“Gure iritziz (irakaskuntza kontzertatuen patronalek), ez daukate kezkatzeko motiborik. Guk pentsatzen dugu lege honen aprobazioarekin ez dagoela inongo arazorik orain arte itunpeko ikastetxeekin egin dugun lanaren inguruan jarraitzeko, orain arte bezala”.*

Azken hamarkadetakoa bilakaerak erakutsi digu zein den Jaurlaritzaren norabidea PSEren eta EAJren eskuetan: %20 igo da sare pribatuko itunen finantzaketa (2008-2021), eskola publikoek murrizketak jasan dituzten bitartean eta azken bi ikasturtetan eskola publikoan 160 gela gutxiago daude .

Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza-lege berria 2024rako aurreikusten duela jakinarazi du. Lege berri bat izateak, berez, ez du ezer hobetzen ez badie heltzen aipatutako arazoei eta dugun sistema duala diskriminatorioa sendotzeko izango bada. Neurriak hartu behar dira balizko hezkuntza-legeari itxaron gabe. Laster, hezkuntza-itunak beste sei urtetarako berritzeko garaia helduko da eta jakin nahiko genuke ea gaur egungo gelak itunduko diren. Diru publikoa luzatuko du EJK inolako baldintzarik gabe, gizartearen kohesioarekiko konpromisorik exijitu gabe?

Eskola publikoa indartzeko ordua da, azpiegiturak hobetuz, ratioak jeitsiz eta baliabide pertsonal eta materialetan inbertituz, murgiltze eredua unibertsalizatuz eta denona eta denontzat den hezkuntza publikoa ardatz bilakatuz. Bide batez, herriz-herri segregazio mapa osatu eta neurriak planteatu behar dira.

Honegatik guztiagatik, Euskal Eskola Publikoaren alde mobilizatzeko garaia iritsi dela uste dugu eta horretarako, Hezkuntza publikoan sinisten duten **herritar guztiei dei egiten diegu datorren udazkenean elkarrekin kalera ateratzera manifestazio erraldoia osatuz: familiak, langileak eta ikasleak.**

Bitartean beste proposamen bat egin nahi diegu ikastetxe guztiei:

Mobilizazioko kartelean agertzen den zurigunean, ikastetxearen izena jarri eta ikastetxeko toki ikusgarri eta esanguratsu batean itsatsi, gaurtik udazkenera bitartera. Gero, kartelarekin, hezkuntza-komunitatearen argazkia egin eta eskolapublikoazharro@gmail.com helbidera bidaltzeko gonbita egiten dugu. Ikastetxe guztien atxikimendua jaso nahi dugu Euskal Eskola Publikoaz harro gaudela berriro ere adierazteko.

**BADA, HEMEN GAUDE, GERO ETA GEHIAGO ETA GERO ETA LOTUAGO
HEZKUNTZA PUBLIKOAREN ALDE ETA PRIBATIZAZIOARI EZ ESATEKO!**

UDAZKENEAN DENOK KALERA!



Euskal Eskola Publikoaz Harro Topagunearen PRENTSAURREKOA

Kide hauek osatzen dugu Topagunea:

Gasteizko, Oiongo, Bilboko, Santurtziko, Oarsoaldeako, Astigarragako, Donostialdeako, Lasarte-Oriako plataformak, Ordiziako Euskal Eskola Publikoko Komunitateak. Goieskola.

EHIGE (Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarteak)

HEIZE (Euskal Eskola Publikoaren Zuzendaritza Elkartearen Federazioa)

IKASLE SINDIKATUA, IKASLE EKINTZA, GAZTE KOMUNISTAK, IKASLE ABERTZALEAK

LAB, STEILAS, CCOO, ESK